



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko ekainaren 2a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Xabierko auditoria eraikitzeko egindako inbertsioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, alergia edo asma arazoak dituzten pertsoneri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua privatizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, helduen oinarrizko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, erizaintzako lanbide karrerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2006ko maiatzaren 29koa, egoitzaren garbiketarako lehia-keta publikorako deialdia egiten duena (40. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Xabierko auditoria eraikitze egindako inbertsioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Xabierko auditoria eraikitze egindako inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2006. urtean, San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatu behar dela eta, Jesusen Lagundiak ardura hartu zuen zuzentzen duen Espiritualtasun Zentroko orubean erabilera anitzeko kultur gune bat eraikitze, 1.150 lagunentzako toki izanen duena eta mota guztietako jarduerak garatzeko prestaturik egonen dena.

Proiektua Antón López de Aberasturi, Fernando Pérez Simón eta Xabier Barrutieta Basurco arkitektoek idatzi zuten; izan ere, horiek irabazi zuten Xabierko Gazteluaren ingurua antolatze aurreproiektuen lehiaketa. Proiektuari 1.850.000 euroko kostua kalkulatu zaio.

Nafarroako Gobernuak interesgarria deritzo ezaugarri horietako azpiegitura bat izateari, turismorako toki erakargarritzat jotzen duelako; hori dela eta, horren eraikuntza diruz laguntzea erabaki zen eta Jesusen Lagundiari 1.387.500 euroko dirulaguntza eman zitzaion horrela banaturik:

451.000 euro 2005. urteko gastuen aurrekontuko "Xabierko plan zuzendaria" izeneko A20001-A2110-7810-458103 kontusailaren kargura.

936.500 euro 2005. urteko gastuen aurrekontuko "Xabierko balio anitzeko zentroa" izeneko A11002-A1410-7810-331100 kontusailaren kargura.

Obra egiten ari zen bitartean, Jesusen Lagundiak bere kargura proiektuan aldaketak eta hobekuntzak egin zituen instalazioko akustika hobetze eta erosotasuna ziurtatzeko. Aurreikusi gabeko gastu horiek gehi altzairuena eta bestelako hornidurarena gehituta, azpiegiturari gutxi gorabehera 3.250.000 euroko gastua kalkulatu zaio.

Horretaz gain, eraikinean Greorg Schurhammer izeneko dokumentazio-zentroa dago. Kultura eta Turismo Departamentuko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak zentroko dokumentu-funtsa digitalizatu eta katalogatu du. Gainera, behar zituen instalazio, altzairu eta langileaz hornitu du. Ramón Areces Fundazioak, bere aldetik, 75.000 euro eman zituen ekipamendu informatikarako.

Urte osoan egiteko ekitaldi ugari programatu dira Xabierko auditorioan. Nafarroako Gobernuak antolatutako programazio kulturalaz eta instituzionalaz gain, badaude Jesusen Lagundiak eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzak antolatutako programazioak. Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretan Nafarroako Gobernuak antolatutako kultur ekitaldiak hauexek dira: Boliviako San Ignacio de Moxos Orkestraren kontzertua, "Mil voces cantan a Javier" izeneko kontzertu zikloa, Sarasate Orkestrak eta Iruñeko Orfeoak eskainitako kontzertu sinfoniko eta korala, Radio Tarifa, Noa, Madredeus eta The Chieftains gaur egungo musika egiten duten taldeek emandako kontzertuak, antzerki zikloa Pati Freerekin, eta "Id por todo el mundo" izeneko dantza zikloa.

Nafarroako Gobernuak antolatutako egitarauaren aurrekontua 4.900.000 eurokoa da; horietatik,

Nafarroako Kutxak milioi bat euro jarri ditu. Programatutako ekitaldi bakoitzaren kostua egokitzapenen menpe dago; izan ere, ekitaldiak kontratatze-ko espedienteak oraindik instruitzen ari dira.

Etorkizuneko erabilerari dagokionez, Xabierko balio anitzeko zentroak baditu beharrezkoak diren edukiera eta instalazioak Zangozako eskualdeko erreferentzia izateko; azpiegitura horrek duen malgutasun arkitektonikoak aukera ematen du era askotako ekitaldiak antolatzeke: erlijiosoak, akademikoak, biltzarrak, musika ekitaldiak edo formatu ertaineko antzezlanak. Hori dela eta, aurreikusita

dago etorkizunean Nafarroako Gobernuak, Jesusen Lagundiak eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzak bertan ekitaldiak antolatzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 2an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Itzea etxea, Caro Baroja sendiaren jabetzakoa baita, museo bihurtzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Berako Itzea etxearekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Caro Baroja familiak ez dio inoiz Nafarroako Gobernuari eskaintzarik egin Itzea museo bihurtzeko.

Caro Baroja familiak hartu emanak izan ditu Nafarroako Gobernuarekin Barojatarren Museo-bilduma bat hartuko zuen egoitza eraikitzeko, baina ez Itzean baizik eta beste nonbait.

Horretarako, Domiñenea izeneko eraikina egokitu eta hornitu da. Horretaz gain, gestio ugari egin dira Portu etxea izeneko eraikinaren inguruan, baina Nafarroako Gobernuaren kontroletik kanpo arrazoiengatik ez da inolako adostasunik lortu.

Nafarroako Gobernuak eta Caro Baroja familiak ez dute aurreikusten Itzea museo bihurtzea; aitzitik, Caro Baroja familiak asmoa du, behin eta berriro adierazi duenez, etxea familiaren bizitoki bezala mantentzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 23an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Erresuma baten Aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” erakusketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du “Erresuma baten aroa” erakusketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Bere garaian erantzun genuen bezala, “Erresuma baten aroa, Antso Handia eta bere leinua. Koroaren eta Iruñeko elizbarrutiaren bidegurutzeak” izeneko erakusketa Nafarroako Ondare Histo-

rikoa zaintzeko Fundazioak antolatu du Iruñeko Artzapezpikutzarekin elkarlanean; Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren babesarekin; eta Diario de Navarra, Guardian Navarra eta Iberdrolaren laguntzarekin.

Gainerako gaiei dagokienez, esan behar da Equipuseus-Equipamientos para Museus Lda. Izeneko enpresa portugaldarrak honako lanak egin zituela: hornitzea, gauzatzea, instalatzea, prestatzea, beira-arasak mantentzea eta desmuntatzea, erakusketako altzariak eta atal bakartuak jartzea. Horren guztiaren kostua 181.000 eurokoa izan zen. Zerbitzu hori kontratatu zen lehia publikoko prozeduraren bitartez, eta ekainaren 16ko Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeak ezartzen dituen publikitate, lehia, gardentasun eta objektibotasun printzipioei jarraikiz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Nafarroan, 2005ean, langile autonomoen alta gutxiago egon izanaren arrazoiei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

1. galdera.

Nafarroa, 2005ean, langile autonomoen alta gutxien (zenbakitan) izan dituzten autonomia erkidegoetako bat izatearen arrazoietako bat da 16

urtetik gorako biztanle gutxien duen hirugarren erkidegoa dela Espainian, Errioxa eta Kantabriaren atzetik.

Hazkunde erlatiboari dagokionez, arrazoia da Nafarroako enplegu-maila handia, 2010. urterako Europar Batasunak jarritako helburuak gainditzen dituzten tasak dituena; horrek zailtzen ditu ehunekoetan hazkunde handiak izatea.

Halaber, eragin nabarmena izan du azken urtean beren egoera legezatu duten atzerritarren kopuruak; horrek ekarri du Nafarroan aurreko urtearekin alderatuta % 33ko gehikuntza, eta Espainian, aldiz, gehikuntza hori % 50,5ekoa izan da; batez ere, nabarmentzekoa da langile autonomoen erregimenean izandako afiliatuen gehikuntza.

2. galdera.

Nafarroako Gobernuak bete du 2005-2007rako III. Nafarroako enplegurako planean UGT, CCOO eta CENekin adostutakoa, hau da, langile autonomoak, ekonomia soziala eta familia-enpresak laguntzeko erabakia.

Era berean, CEIN, S.A.ren jarduketak sustatzen ditu ekintzaileei laguntzeko eta jarrera lehia-tsua sustatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Álvaro de Maricha-

lar jaunarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kultura eta Turismo Departamentuak ez du aurreikusita inolako babes-akordiorik egitea Álvaro de Marichalar jaunarekin, ezta asmorik ere galderak aipatzen dituen lan-jarduera eta jardun pertsonalari buruzko iritzirik emateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Larragan lasterkari bat hil izanarekin lotutako zenbait jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Larragako Erregetako XIX. Krosari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Zer ordutan jaso zuen abisua SOS Nafarroak?

11:42an dei bat jaso zen telefono mugikor batetik, eta haren arabera, 30 bat urteko pertsona bat konorterik gabe geratua zen lasterketa batean.

2. Zer bitarteko eraman zituen gertaerako lekura?

Honako baliabideak abiarazi ziren:

- Artaxoako oinarrizko osasun barrutiko guardiako medikua.
- Artaxoako oinarrizko osasun barrutiko guardiako OLT-EDUa.
- A-199 anbulantzia medikalizatuta.
- Foruzaingoaren Z-216 eta Z-2034 patruilak.
- Polizia judiziala

3. Zein udalerritan zeuden Larragara joan ziren guardiako sendagilea eta OLTa?

Eskuartean ditugun datuen arabera, medikua Artaxoan betetzen ari zen guardia, eta OLTa, berriz, Berbintzanan. Hala ere, aipatu gertaerak jazo zirenean, erizaina Larragako osasun etxean zegoen, etengabeko osasun laguntza behar duten

gaixoak artatzen; hori dela eta, berehala iritsi zen istripua gertatu zen tokira.

4. Zenbat denbora behar izan zuen anbulantzia medikalizatuak gertaerako lekura iristeko?

Jasotako datuen arabera, deia 11:48an jaso zen, eta anbulantzia 12:27an iritsi zen bertara.

5. Zein anbulantzia bidali zuen SOS Nafarroak eta zergatik?

Prozedura operatiboak eta lurraldea eremutan banatzeari buruzkoak laguntza guneetara heltzeko beharrezkoa den denborako isokronoen arabera ezartzen dira, larrialdiei ahalik eta denbora laburrenean erantzute aldera; hori dela eta, egun eta une horretan, Iruñean basea duen A-199 SAMU-UCI anbulantzia medikalizatuari zegokion Larragara joatea.

6. Gertatutakoaren ondoren, zer balorazio egin du Gobernuak gertatu zenari buruz?

Kontseilari honek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eginiko agerraldian azalduko.

7. Uste al du Nafarroako Gobernuak laguntza hobea emanen zela osasun etxea irekita egon izan balitz edo anbulantzia medikalizatu hurbilago egon izan balitz?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako laguntza egokia izan zen.

Osasunbideak bihotz-biriketako bizkortzea egiteko beharrezkoak diren baliabideak jarri zituen hasieratik, desfibriladore erdiautomatikoa barne.

8. Zein dira gertaeraren ondorioak? Horren arabera, aldatuko al duzue Artaxoako oinarrizko eskualdearen osasun egoera? Erantzunean arrazoiak ematea nahi dugu.

Gaur egun, Osasunbideak ez du asmorik Nafarroako osasun laguntza jarraituko eredian aldaketarik egiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko anbulantzien zerbitzuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Kontratazio hori arautzen duen klausula teknikoaren orriko zazpigarren puntuak honakoa ezartzen du: “enpresa adjudikazio-hartzaileak 8:00etatik 22:00etara ospitaleek eskatutako lekualdatze guztiak egin behar ditu (18:00ak arte ospitaleratu-tako gaixoen altak eta larrialdi zerbitzuetik etxera eramatea); horretarako, eskaera horiek jasotzea ziurtatuko da”.

Ospitaleen arteko lekualdatzeak SOS Nafarroak eginen ditu, iraupen-baseak erabiliz, orain arte bezala eta baldintzen orri berrian aldaketarik egin gabe.

22:00etatik aurrera zerbitzua ospitalearen beraren irizpidearen arabera bermatuko da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Osasun kontseilaria María Kutz Peironcely

Galdera, alergia edo asma arazoak dituzten pertsoneri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak alergia edo asma arazoak dituzten pertsoneri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du alergia edo asma arazoak dituzten pertsoneri buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2005ean, 795 immunoterapia tratamendu injektagarri hasi ziren; horietatik, 254 gaixo (% 32) Iruñerrikan kanpokoak dira

Tratamendu horiek iraupen luzekoak dira; alergologia zerbitzuan ezartzen dira eta jarraipena ematen zaie gaixoaren osasun etxean.

Osasun Departamentuak ez du aurreikusita immunoterapia tratamendua alergologia zerbitzuetik kanpo hastea, batez ere, gaixoaren segurtasunagatik. Eskuragarritasunari dagokionez, esan behar da ia tratamendu osoa osasun etxean egiten dela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko pabilioiak garbitzeko zerbitzua pribatizatzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Kanpoko enpresen bidez ematen diren garbiketako zerbitzuek zuzen eta aipatzeko moduko gora-beherarik gabe funtzionatzen dute.

Kontratu guztiak indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dira.

Baldintzen orriek subrogazioa eskatzen dute legearen arabera dagozkien kasuetan, betiere, kasuan kasuko sektoreko lan hitzarmenari jarraikiz. Enpresek, baldintzen orria hobetzeko dituzten aukeren artean, orain lanean ari diren langile guztiak edo haietariko batzuk kontratatzea eskain dezakete, eta horrek balorazio ona izanen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak kirol proba bat egiten ari zen bitartean Larragan lasterkari bat hil izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Larragako Erregetako XIX. Krosari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderaren sarreran egiten den baieztapena onartezina da; izan ere, planteamenduaren funtsa da "horrelakorik berriz gerta ez dadin" lortzea, eta baieztapen horrek, nahita ala nahi gabe, istripuei aurrea hartzeko jarri ziren bitartekoak eta parte-hartzaile bat hil izana lot ditzake.

Nafarroako Gobernuak elkartasuna adierazi die hildakoaren senitartekoei eta lagunei eta ezbeharra eta horren ondorio larriak deitoratu ditu; Gobernuak egiten ari den lanaren asmoa da, hain zuzen ere, indarrean dagoen legeria betetzea eta, kasua bada, horrelako ekitaldietan ezbeharrei aurrea hartzeko jartzen diren bitartekoak hobetzeko neurriak ezartzea.

Ukaezina da istripua izan dutenak laguntzeko aukerak handiagoak direla bertan dauden baliabideak ere ugariagoak diren neurrian; hala eta guztiz ere, ezin da inolaz ere onartu lotura zuzena dagoenik jarri diren bitartekoen eta istripu zehatz baten ondorioen artean, eta, are gutxiago, esatea, galderak esaten duen bezala, "horrelakorik berriro gerta ez dadin" lortzeko, nahikoa dela besterik gabe, baliabide edo bitarteko gehiago eskura jartzea.

Egindako galdera zehatzei dagokienez, honako hau azaldu behar dugu:

1.- Nori dagokio baimena ematea anbulantziek osasun garraioa egin ahal izan dezaten?

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, Osasun Zentro eta Jardueren Ikuskapen Zerbitzuaren bidez.

2.- Nori dagokio anbulantzien osasun ikuskapenak egitea indarra duten arauen arabera baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko?

Kasu honetan ere Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari, Osasun Zentro eta Jardueren Ikuskapen Zerbitzuaren bidez.

3.- Ba al zuen udalak kontraturiko anbulantziak beharrezkoa den baimena osasun garraioaren zerbitzua egiteko?

Bai, garraiorako anbulantzien baimena zuen; horrek baimena ematen zion beharra zuten gaixoak garraiatzeko, betiere, bere egoerarengatik gaixoari bidean laguntza emateko beharrik aurreikusten ez bazen (29/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, 4.1 artikulua).

4.- Zer kontrol egin zitzaion lasterketan egon behar zuen anbulantziari?

2005eko maiatzean, indarreko legeak osasun arloko garraioetarako eskatzen duen kontrola egin zitzaion anbulantziari, garraiorako anbulantzia den aldetik.

5.- Zein legeko baldintza bete behar ditu udal batek aipatutakoa bezalako kirol proba bat antolatzeko? Kasua bada, dena zuzen bete al zuen Larragako Udalak?

Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak eta Ikuskizun publikoen eta josteta jarduerak baimentzeko baldintzak arautzen duen martxoaren 8ko 44/1990 Foru Dekretuak ezartzen dituztenak, baita kasu honetan aplikatzekoak diren bestelako araudiek ezarritakoa ere.

Oraindik ezin da esan Larragako Udalak, Erregetako XIX. Krosa baimentzean, legea bete zuen ala ez, auzi hori tramitazio fasean dagoen hasitako zehapen espedienteari dagokiolako.

6.- Nola liteke Nafarroako Gobernuak eledunak esatea udalak hutsak zituen anbulantzia bat kontratatu zuela?

Hutsak zeudela esatean, ez zen adierazi nahi kontratatutako anbulantziak gabeziak zituela bere kategoriakoei eskatzen zaizkien baldintzei dagokionez, hau da, esan denez, kategoria hori egokia

da bere egoerarengatik bidean laguntza emateko beharrik ez zuten gaixoak garraiatzeko, baizik eta ez zituela betetzen istripuen ondorioz beharrezkoa zen laguntza emateko gutxieneko baldintzak; izan ere, kasu honetan, egokiagoa izanen zen 29/1997 Foru Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritako "laguntzarako anbulantzia" bat bertan egotea.

7.- Zuzen funtzionatu al zuen guardian zeuden osasun langileek eramandako desfibrilazio-monitore eramangarriak?

Bai.

8.- Adituen irizpidea eta iritzia da honelakoetan funtsezkoa dela berehala jardutea pertsona baten bizitza berreskuratzeko, eta garrantzitsua dela bizkortze unean desfibriladore bat izatea; jakina zen, osasun etxea itxita zegoela oinarritzko eskualde horretako guardiak, inork ez daki zergatik, lokalizatuak direlako. Aurrekoak kontuan hartuta, zergatik itxaron zen hainbeste denbora anbulantzia medikalizatua iritsi arte, hura topatzera irten beharrean, denbora irabazteko?

Bihotz-biriketako bizkortzea bertan egiteko eta gaixoa anbulantzia medikalizatua zegoen tokira ez eramateko erabakia hildakoa artatu zuen sendagi-

leak hartu zuen. Erabakia hartzeko orduan kontuan izan zuen Larragako Udalak kontratatutako anbulantzia "garraiorako anbulantzia" zela eta beraz, anbulantzia horrek bihotz-biriketako bizkortzea behar bezala egiteko gutxieneko baldintzak ez zituela betetzen.

9.- Urrunago egonda, zergatik joan zen Iruñeko anbulantzia medikalizatua, Lizarrakoa joan beharrean, istripua gertatu zen lekura iristeko denbora gehiago behar bazuen?

Prozedura operatiboak eta zonifikazioari buruzkoak laguntza guneetara heltzeko beharrezkoak diren denboren isokronoen arabera ezartzen dira. Hori egiten da larrialdiei ahalik eta azkarren erantzute aldera; hori dela eta, egun eta une horretan Iruñean basea duen A-199 SAMU-UCI anbulantzia medikalizatuari zegokion Larragara joatea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak iragan otsailaren 4an Xabierren alkateekin antolatutako ekitaldiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko iragan otsailaren 4an Xabierren Nafarroako alkateekin egindako bilerari buruz. Hona Toki

Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Xabierren Nafarroako alkateekin egin zen bilerara joan zirela ehun eta hogeita bi alkatek edo udaleko kidek berretsi zuten; horietariko batzuk lagunduta joan ziren.

Hona hemen ospakizuna izan baino egun batzuk lehenago alkatea edo zinegotziren bat bidali behar zuten udalen zerrenda:

- Abaigarko Udala
- Aburrepeko Udala
- Ablitasko Udala
- Adiosko Udala
- Agoizko Udala
- Aiegiko Udala
- Allin Ibarreko Udala
- Alloko Udala

- Andosillako Udala
- Añorbeko Udala
- Antzingo Udala
- Arantzako Udala
- Arguedaseko Udala
- Armañantzasko Udala
- Atarrabiako Udala
- Aurizko Udala
- Azagrako Udala
- Barasoaingo Udala
- Bargotako Udala
- Barillasko Udala
- Baztango Udala
- Beireko Udala
- Berbintzanako Udala
- Berriobeitiko Udala
- Berriozarko Udala
- Bidankozeko Udala
- Buñuelgo Udala
- Burgiko Udala
- Cárcarko Udala
- Cascanteko Udala
- Cintruénigoko Udala
- Cortesko Udala
- Deikazteluko Udala
- Desojoko Udala
- Eguesibarko Udala
- Enerizko Udala
- Erroibarko Udala
- Erromantzatuko Udala
- Erronkari Ibarreko Udala
- Esako Udala
- Eslabako Udala
- Esprontzedako Udala
- Esteribarreko Udala
- Ezkabarteko Udala
- Ezkarozeko Udala
- Ezporogiko Udala
- Faltzesko Udala
- Fiteroko Udala
- Funesko Udala
- Fustiñanako Udala
- Galarko Udala
- Galipentzuko Udala
- Garaioako Udala
- Gareseko Udala
- Gazteluberriko Udala
- Genevillako Udala
- Ibargoitiko Udala
- Irunberriko Udala
- Iruñeko Udala
- Itzagaondoako Udala
- Izabako Udala
- Kasedako Udala
- Lana Ibarreko Udala
- Lanzko Udala
- Larragako Udala
- Ledeaiko Udala
- Lergako Udala
- Lezaungo Udala
- Lizoaingo Udala
- Lodosako Udala
- Los Arcosko Udala
- Marañóngo Udala
- Martzillako Udala
- Mendazako Udala
- Mendigorriko Udala
- Mirafuentesko Udala
- Morentingo Udala
- Muesko Udala
- Murchanteko Udala
- Murietako Udala
- Murillo el Cuendeko Udala
- Murillo el Frutoko Udala
- Nabaskozeko Udala
- Nazarko Udala
- Noaingo Udala (Elortzibar)
- Obanosko Udala
- Oibarko Udala
- Okoko Udala
- Olaztiko udala.
- Olexuako Udala
- Orisoaingo Udala
- Orontzeko Udala
- Orotz-Beteluko Udala
- Piedramillerako Udala
- Pitillasko Udala
- Ribaforadako Udala
- Santakarako Udala
- Sartagudako Udala
- Sorladako Udala
- Tirapuko Udala

– Torraba del Río ko Udala	10,45	Gaztelua bisitatu (museoa eta barren historikoak).
– Torres del Río ko Udala		
– Tulebrasko Udala	12,00	Meza San Frantzisko Xabierkoaren basilikan.
– Tuterako Udala		
– Ukarko Udala	12,45	Frantzisko Jatsukoaren aretoa bisitatu. "La huella universal de Francisco de Javier" ikus-entzunezkoaren emanaldia.
– Ultzamako Udala		
– Untzueko Udala	13,15	G. Schurhammer dokumentu-aretoa bisitatu.
– Urraulbeitiko Udala	13,30	Harrera ofiziala izpiritualtasun zentroko patio estalian. Honakoen hitzaldiak: Toki Administrazioiko kontseilariarena, Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen Federazioko lehendakariarena eta Xabierko alkatearena.
– Urrozko Udala		
– Urzainkiko Udala		
– Uxueko Udala		
– Uztarozeko Udala		
– Valtierrako Udala	14,00	Bazkaria Xavier hotelean.
– Xabierko Udala		Aurrekontua 7.000 eurokoa izan zen, "Protokolo harrerak" izeneko 220004 22200 2261 921B0 kontusailaren kargura.
– Zareko Udala		Ondokoa da ekitaldi bakoitzaren kostua:
– Zizur Nagusiko Udala		– Bisitaldia Xabierko gaztelura: 303,77 euro
Ohiko Elkarteen ordezkariak:		– Bazkaria Xavier hotelean: 6.644,7 euro (230 bazkaltiar).
– Zaraitzuko Batzarre Nagusia		Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.
– Nafarroako Errege Bardeako Batzarrea		Iruñean, 2006ko martxoan
Xabierko Udala:		Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eleduna: Alberto Catalán Higuera
– Xabierko zinegotziak		
Ondokoa izan zen eguneko egitaraua:		
10,30		Gonbidatuak Xabierrera heldu.

Galdera, helduen oinarrizko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak helduen oinarrizko hezkuntza arautzen duen foru legearen aplikazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du helduen hezkuntzari buruzko 19/2002 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan helduen hezkuntza arautzen duen ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legeak hartzen du erreferentzia modura Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 30eko 1/1990 Lege Organikoko III. titulua. Izan ere, foru lege hori garatzen da aipatu hezkuntza sistemari buruzko lege organikoaren eta bere printzipioen arabera.

19/2002 Foru Legeak honako bi dekretuak biltzen ditu: Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duen eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituen uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretua eta Nafarroako Foru Komunitatean Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak emanen dituzten ikastetxe publikoen sarea ezartzen duen uztailaren 6ko 256/1999 Foru Dekretua. Beraz, bi dekretu horiek indarrean daude.

Hori ezarrita dago 19/2002 Foru Legearen zioen azalpenaren zortzigarren lerrokadan:

Oinarrizko hezkuntzako berariazko eskaintzaren araubidea ezarri dute Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duen eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan horren irakaskuntzaren egitura eta curriculum zehatza ezartzen dituen uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuak eta Nafarroako Foru Komunitatean Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketak emanen dituzten

ikastetxe publikoen sarea ezartzen duen uztailaren 6ko 256/1999 Foru Dekretuak.

Ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legea argitaratu eta hilabete batzuk geroago, indarra hartu zuen abenduaren 23ko 10/2002 Legeak (LOCE), eta lege horrek, xedapen indargabetzaile bakarraren bidez, LOGSEren III. titulua berariaz indargabetzen du. Aurreikusten zena zen LOCE garatu eta hezkuntza mota horiei buruzko erregelamendu berria izanen zela estatu osorako; hori dela eta, ez zen logikoa autonomia erkidegoek helduen hezkuntzari buruzko inolako arau-garapenik egitea, harik eta estatuan oinarrizko araudi bat izan arte.

Helduen hezkuntzari buruzko LOCEren arau garapena ez zen gertatu; horretaz gain, geroztik, lege hori bera aplikatzeko luzamenduak, maiatzaren 28ko 1318/2004 Errege Dekretuak, galarazi egin du.

Hezkuntzari buruzko lege berri bat (Hezkuntzaren Lege Organikoa) parlamentuko tramitean dago. Hezkuntzaren Lege Organikoa onetsi ondoren, errege dekretuen bidez garatuko da, eta horiek, kasuan kasuko foru araudiaren bidez egokitu-ko dira Nafarroako erreialitatera.

Hori guztia gorabehera, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak 19/2002 Foru Legean aurreikusitako zenbait neurri ezarri ditu:

Mentor ikasgelen programa, 2004ko abenduaren 27an Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin sinatutako elkarlanerako hitzarmenaren emaitza dena (teknologia berriak garatzeko programei buruzko abenduaren 27ko 1293/2004 Ebazpenaren 5.e artikulua).

Nafarroan, ezgaitasuna duten helduak laguntzeko 12 ikasgela abian jartzea. Gainera, ezgaitasuna duten helduen laguntza Hezkuntzaren Lege Organikoaren 5.g artikuluan azaltzen da.

Estatuko araudiaren egoera hori izanik, zuhurrena da ekainaren 21eko 19/2002 Foru Legearen arau garapena Hezkuntzaren Lege Organikoan ezarritakoarekin bat egitea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Sanyok Tuteran duen lantegia ixteari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

1. Sanyo multinazionalak Tuteran duen lantegiaren itxiera langileekin adostu da. Sanyok Tuteran duen lantegiko langileek, joan den martxoaren 8an egindako batzarrean, gehiengoz onartu zituzten enpresak lantegia ixteko jarritako baldintzak, aurretiko erretiroei, kalte-ordainei eta birkokatzei dagokienez.

Prozesu honetan guztian, Nafarroako Gobernuaren jarrera argia izan da: ahalegina egin du lantegia itxi ez zedin, eta horretarako bertan jardura produktibo berri bat ezartzen saiatu da. Kontseilariak Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordean egindako agerraldian jakitera eman duenez, Sanyok ez ditu kontuan hartu Nafarroako Gobernuak proposatu dizkion alternatiba guztiak. Horien artean dago zelula fotovoltaikoak fabrikatzeko proposamena, Sodenaren bidez egina.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren ustez, garrantzitsua da enpresaren eta langileen artean

lortutako akordioetan industrializazio plan bat saritzea.

Sanyok aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientean ez zen industrializazio planik agertzen; hori dela eta, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioak eskatutako txostenean Nafarroako Gobernuak kontrako iritzia azaldu zuen.

2. Galderak aipatzen duen langileen lan irtenbideari dagokionez, enpresa eta langileen arteko akordioan oraingo instalazioak berrerabiltzea aztertu ez denez, Sanyok edo beste batek industria plan bat garatzea oso zaila izanen da. Hortaz, espedienteak ukitutako langileen egoerari irtenbidea emanen zaio birkokatze-prozesuen bidez.

3. Nafarroako Gobernuak industria jarduerak sustatzeko daraman politika begi bistakoa da; izan ere, Nafarroan, Erribera da industria-inbertsio gehien jasotzen ari den eskualdea. Esaterako, Ibertissue, S.A.enpresak Buñuelen, Gamesak Tuteran eta CAFek Castejónen egin dituzten inbertsioek 400 lanpostu sortuko dituzte gutxi gorabehera .

Nafarroako Gobernuak politika hori bultzatzen jarraitzen du, eta horregatik, erabaki berri du 27 milioi euro bideratzea Tuterako jardura ekonomikoaren lehenengo fasea urbanizatzeko obrak egiteko. Lehenengo fase horretan Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria ezarriko da, eta horrek 1.400 lanposturen sorrera ekarriko du.

4. Balorazio hori alde aurretiko eta Sanyo enpresaren egoerarekin zerikusirik ez duen jarduketa bati buruzkoa da, eta kontseilari hau ez dator bat horrekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak 0tik 3 urtera bitarteko zikloa ezartzeko laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du 0-3 urte bitarteko ikastetxeak ezartzeagatik ematen diren laguntzei buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza Departamentua 0-3 urte bitarteko zikloa ezartzeko eskaeren inguruan egiten ari den planifikazioa da, funtsean, 2004ko abenduaren 16ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Egun, oraindik, udalek dute 0-3 urte bitarteko ikastetxeak eraikitzeke ekimena; horren zergatia da haur hezkuntzako lehen zikloko zentroek bete beharreko baldintzak eta antolamendua arautuko

dituen foru araua ezin dela garatu, estatuko oinarriko araudirik ez dagoelako.

Horrela, zenbait udalek ikastetxea eraikitzeari ekin diote hasiera batean ezarritako data baino lehenago.

Hezkuntza Departamentuak honako irizpideak erabili ditu laguntzak emateko:

1.- Oraingo ekitaldia baino lehen Gobernuaren erabaki baten bidez formalizatutako gastu konpromisoa zuten udalerrriak.

2.- Martxoaren 7ko 119/2003 Foru Aginduan (ekainaren 6ko 255/2003 Foru Aginduaren bidez baliogabetu zena) sartu ziren udalerrriak; foru agindu horrek eraikitzeke obra eta proiektuetarako dirulaguntzen araubidea ezarri zuen, betiere obra eta hornidura egina bazegoen urte horretako abenduaren 31 baino lehen.

3.- Horrelako ikastetxeak eraikitzeke dirulaguntzen deialdira sartzeari eskatu duten beste udal batzuk, zeinek ezarritako data baino lehen obrak hasi eta urte horretako abenduaren 31 baino lehen zentroak abian jartzeko asmoa azaldu baitute.

Dirulaguntzak emateko zenbatekoak kalkulatzeko dira udal bakoitzean diruz lagundu ahal den aurrekontuaren arabera, betiere, kontuan izanik zer lan mota den eta zenbat unitate ezarri diren.

Hona hemen 2004an eta 2005ean dirulaguntzak jaso zituzten udalak zenbatekoak adierazita.

UDALERRIA	DIRULAGUNTZA 2004	DIRULAGUNTZA 2005
ALLO		53.670,62
ARANGUREN-MUTILOA		123.057,23
BARAÑAIN	49.222,89	
CABANILLAS-2. FASEA		35.452,20
CASTEJÓN (BEHIN-BEHINEKOA)		36.063,31
OLTZAKO ZENDEA (BEHIN-BEHINEKO)		8.607,89
OLTZAKO ZENDEA		82.038,15
EGUESIBAR	123.057,23	
ERRO	141.808,81	
ERRO (Gehikuntza)		18.907,84
LIZARRA	123.057,23	
FONTELLAS (1. ETA 2. FASEAK)		37.636,46
UHARTE		123.057,23
LEKUNBERRI		82.038,15
IRUÑA (ARROTXAPEA)	53.742,03	
GARES (BEHIN-BEHINEKOA)		51.568,35
RIBAFORADA	41.019,08	61.528,61
ERRONKARI (BEHIN-BEHINEKOA)		2.169,85
SESMA (BEHI- BEHINEKOA)		12.307,92
TAFALLA	205.095,38	
VILLAFRANCA (BEHIN-BEHINEKO GEHIKUNTZA)		13.165,25

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak helduen hezkuntzako zentroetako irakasleen plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du helduen hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen plantillari buruz eta ikasleen matrikulatzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan, 2005/2006 ikasturtean helduen hezkuntzan ari diren irakasleen plantilla honakoa da:

IKASTETXEA	2005-2006 ikasturteko plantilla.	2005-2006 ikasturteko beharrak betetzeko		
		Behin betikoa	Zerbitzu komisioa	Kontratatuak
José María Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa Iruña	30 irakasle eta 13 ordu	23	4	3 eta 13 ordu
Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa Tutera	9 irakasle eta 8 ordu	7	1	1 eta 8 ordu
Altsasuko eskualdea	2 irakasle	2		
Lizarrako eskualdea	3 irakasle eta 13 ordu	2	1	13 ordu
Zangozako eskualdea	Irakasle bat	1		
Tafallako eskualdea	3 eskualde eta 8 ordu	3		8 ordu
Irakasleak, guztira	50 irakasle eta 6 ordu	38	6	6 eta 6 ordu)

Hezkuntzaren Lege Organikoa onetsi ondoko lege garapenak baldintzatuko ditu irakasleen plantillari buruzko etorkizuneko aurreikuspenak.

Hezkuntzaren Lege Organikoak bizitzan zehar egindako ikaskuntzari ematen dion garrantziagatik, aurreikus daiteke helduen hezkuntzako ikastetxee-

tako irakasleen plantilla handitu egingen dela eta lege horrek ezarriko dituen profil edo espezialitateak dituzten irakasleak sartuko direla.

Helduen oinarrizko hezkuntzarako ikastetxeetan azken bost urteetako matrikularen bilakaera ondokoa izan da:

Helduen oinarrizko hezkuntzako ikasleen banaketa eskualdeka, ikastetzez ikastetxe eta mailaren arabera															
Eskualdea/ikastetxea	OINARRIZKO HEZKUNTZA					ETORKINENTZAKO GAZTELANIA					PRESTAKUNTZA PERTSONALEKO IRAKASKUNTZA				
	2002	2003	2004	2005	2006	2002	2003	2004	2005	2006	2002	2003	2004	2005	2006
Altsasu															
Helduen oinarrizko hezkuntzako ikasgelak	39	43	44	47	48	2	10	12	18	24					
Elizondo-Lekarotz				3					15						
Lizarra															
Helduen oinarrizko hezkuntzako ikasgelak	17	--	33	42	60	17	28	29	24	22			37	44	61
Iruña															
José M ^a Iribarren Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa	266	222	308	326	400	219	198	275	291	330	1.143	1.165	1.108	936	791
Zangoza															
Helduen oinarrizko hezkuntzako ikasgelak	11	8	13	9	12						32	33	26	25	30
Tafalla															
Helduen oinarrizko hezkuntzako ikasgelak	11	--		14	15	80	46	68	94	71	172	309	251	166	143
Tutera															
Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa Tutera	236	270	284	222	226	166	126	111	142	145	304	446	639	692	683
GUZTIRA	580	543	682	663	761	484	408	495	584	592	1.651	1.953	2.061	1.863	1.708

Aurreko tauletan ikasleen matrikulazioaren bilakaerari eta helduen hezkuntzako irakasleen plantillaren bilakaerari buruz agertzen diren zifrak zehatz ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da modalitate eta talde desberdinetan asteko ematen diren klase-orduak zehazten dituen antolamendu-adierazlea.

Helduen hezkuntzako taldeek asteko dituzten orduak azalduta daude jarduera desberdinen asteko ordutegia arautzeko ikasturtero egiten diren argibideetan; 2005/2006 ikasturtekoak azalduta daude uztailaren 12ko 689/2005 Ebazpenaren 1.eranskinaren 1.3.2 idatz-zatian, eta hitzez hitz horrela esaten du:

“1.3.2 Jardueren asteko ordutegiak.

a) Oinarrizko Prestakuntza:

– I. maila: astean 10 ordu gehienez.

– II. maila: astean 12 ordu. Kasu berezietan asteko orduak gutxitzen ahalko dira, Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskatzapen Teknikorako Zerbitzuak baimena emanaz gero.

b) Gaztelania atzerritarrentzat: astean 4-8 ordu.

c) Adimeneko ezgaitasunak dituzten ikasleak: astean 4-6 ordu.

d) Mentor ikasgeletako ikastaroak: astean 3 ordu.

e) Prestakuntza instrumentaleko arautu gabeko irakaskuntzak (informatika eta hizkuntzak): astean 3 ordu.

f) Kultur zabalpeneko programak: astean 2 ordu.”

Leku aski ez dagoela-eta onartu gabe geratu diren eskabideei dagokienez, kontuan izan behar da matrikula Tuterako eta Iruñeko Helduen oinarriko hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Altsasu, Tafalla, Lizarra eta Zangozako ikasgeletan egiten dela. Toki horietan ez dute onartu gabe geratu diren eskabideen zerrendarik.

Hona hemen “José M^a Iribarren” Helduen Oinarriko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan 2005/2006 ikasturteko bigarren lauhilekoan itxaron zerrendan

geratu diren ikasleen kopurua, espezialitatearen arabera:

– Frantsesa II: 2 pertsona.

– Frantsesa II: 3 pertsona.

– Ingelesa I: 10 pertsona.

– Ingelesa II: 14 pertsona.

– Informatika I: 66 pertsona.

– Informatika II: 36 pertsona.

– Teklatu informatikoa: 20 pertsona.

Azpimarratu behar da, prestakuntza pertsonalari dagokion helduen hezkuntzako modalitatean joateari uzten dion matrikulatutako ikasleen kopurua oso altua dela. Hori dela eta, informatikako zenbait ikastarotan izan ezik, interesa duten guztien eskaerak onartu ahal izanen direla aurreikusiten da.

Dena den, eskatutako ikasketetan tokia izan ez dutenek lehentasuna dute hurrengo lauhilekoan. Informatikako ikasleen itxaron zerrendari dagokienez, bigarren lauhileko bigarren astean itxaron zerrendan zeuden 10 ikasle sartu dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 8an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein dira 2004. eta 2005. aurrekontu ekitaldietan aurreikusi diren kontusaila eta diru kopurua?

2004. urtean:

020002-04100-1620-313600 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izeneko.

Aurreikusitako zenbatekoa: 7.395.000,00 euro.

2005. urtean:

020002-04100-1620-231800 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izeneko.

Aurreikusitako zenbatekoa: 7.542.900 euro.

2.- Zenbateko kopurua bete da 2004an eta 2005ean?

2004. urtean betetako zenbatekoa: 7.729.308,99 euro.

2005. urtean betetako zenbatekoa: 8.285.713,75 euro.

3.- Zein dira 2006. aurrekontu ekitaldirako aurreikusi diren kontusaila eta diru kopurua?

020002-04100-1620-231800 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izeneko.

Aurreikusitako zenbatekoa: 7.957.859,00 euro.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 14an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak 2006an zehar foru lege proiektuak igortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Belloso jaunak galdera egin zuen eta galdera hori Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2006ko urtarrilaren 30ean onartu zuen tramitera. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Gobernuak ez du egutegirik onetsi Nafarroako Parlamentura foru lege proiektuak igortzeko.

2. Prestatu eta tramitatuz gero, baliteke bilkuraldi honetan, egokituz jotzen bada, ondoko lege proiektuak igortzea Nafarroako Parlamentura: Ondareari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamenturako hauteskunderi buruzko Foru Lege proiektua, Landareen osasunari buruzko Foru Lege proiektua, Jokoari buruzko Foru Lege

aldatzeko Foru Lege proiektua, Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektu orokorra, Museoei buruzko Foru Lege proiektua eta Artxiboei buruzko Foru Lege proiektua.

3. Ez da aurreikusten Naturguneei buruzko Foru Lege proiektua aldatzeko Foru Lege proiektua igortzea; izan ere, beharrezkoa da alde aurretik estatuko oinarriko legeriari egokitzea, legeria hori sakonean aldatu behar dutelako Lurraldeari eta biodibertsitateari buruzko Legearen bidez; gaur egun, estatuko administrazio orokorra lege horri buruzko kontsultak eta tramiteak egiten ari da.

4. Galderan aipatzen diren gainerako proiektuak 2006. urtean igorriko dira, egokituz jotzen bada, Nafarroako Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra izan ezik, hori ez baita lehentasunezko zat jotzen.

5. Era berean, baliteke beste hiru lege proiektu onestea eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea: Aberastasunaren erregistro fiskalari buruzko Foru Lege proiektua, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzeko Foru Lege proiektua eta Tributu neurriei buruzko Foru Lege proiektua, hainbat zergatan eragina izanen duena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein dira errehabilitazioko tokiak eta eguneko zentrokoak errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzean?

Itundutako tokiak hauexek dira:

Toki-mota	Iruña	Tutera	Lizarra	Elizondo	Guztira
Errehabilitazioa	35	35	35	20	125
Eguneko zentroa	30	30	30	15	105
Guztira	65	65	65	35	230

2.- Zein da hilabete eta erabilzaile bakoitzeko prezioa errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzeko eguneko zentroan?

	Iruña	Tutera	Lizarra	Elizondo
Hileko modulua eguneko zentroan	845,13	845,13	862,56	1.117,00
Hileko erreserba eguneko zentroan	770,07	770,07	770,07	1.005,30

Tokia gordetzeko ordainketa egiten da hitzarmenen klausula administratiboen orrietan ezarrita dagoen bezala, tokien lehendabiziko betetzea egin ondoren eta 6 hilabetetan erabilzaileen bazarik sortzen bada; geroztik, ordaintzeko beharra bertan behera geratuko da.

Toki hori eman gabe beste sei hilabete igaroz gero, tokia amortizatuko zen kontratua aldatzeko

beharrik gabe. Horrela bermatzen da bakarrik beharrezkoak diren tokiak egotea.

3.- Zein da NGOZek enpresari ordaintzen dion zenbatekoa errehabilitazio psikosozialeko erabilzaile bakoitzeko? Kostua orduka ala eguneka kalkulatu dago? Erantzun arrazoitua eman bedi.

	Iruña	Tutera	Lizarra	Elizondo
Errehabilitazioaren orduko kostua	6,31	6,31	6,62	6,70

Errehabilitazio psikosozialeko prozesua era malgutan, jarraituan eta progresiboan egiten da, erabiltzaile bakoitzaren ezaugarri egokitzuz. Errehabilitazio psikosozialeko zentroek eguneko laguntza ematen dute, goizez eta arratsalde, 9:30etatik 17:30era. Erabiltzaileak egun bakoitzean bertan egoten diren denbora aldakorra da, bakoitzaren ezaugarrien arabera eta norbanakoaren esku-hartze programaren arabera. Hori dela eta, errehabilitazio programen kostua orduka kalkulatu dugu.

Errehabilitazio psikosozialeko zentroaren barruan, kalte gehien dituztenak eguneko zentroko programaren onuradunak izan daitezke; programa horretan hainbat ekitaldi egiten dira (kulturalak,

sozialak, kirol arlokoak, okupazionalak, aisialdikoak, eta abar) ordutegi jarraituan, 9:30etik 17:30era. Ekitaldi horiek balio nahi dute eguneroko bizitza egituratzen laguntzeko eta sozializatorako.

4.- Zein da errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzaren plantilla, haiek kudeatzeko hitzarmenean aurreikusita dagoena?

Iruñean, Tuteran eta Lizarran errehabilitazioko 35 toki eta eguneko zentroko 30 toki egonik eta Elizondon errehabilitazioko 20 toki eta eguneko zentroko 15 toki egonik, honakoa da eginiko hitzarmenetan errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzean aurreikusitako plantilla :

LANGILEAK	Iruña	Tutera	Lizarra	Elizondo
Langile finkoak				
Koordinazioa eta zuzendaritza	1	1	1	1
Psikologoa	0,5	0,5	0,5	0
Gizarte langilea	0,5	0,5	0,5	0,5
Administrari laguntzailea	1	1	1	0,5
Garbiketa	0,5	0,5	0,5	0,25
Langileak (8 ordu egoten direnak)				
Lan-terapeuta	1	1	1	1
Zaintzaileak	1	1	1	1
Lan-prestatzailea	1	1	1	
Gizarte hezitzailea	3	3	3	2

5. Zein langile plantilla, profesionalen nolakotasuna zehaztuz, kontratatu zen errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitza irekitzeko eta lan egiteko?

Orriak zentroari eskatzen dio programa eta jardueraren desberdinak garatzeko beharrezkoa den langileria izateko, horren barne beharrezkoak diren espezialitateetako profesionalak ere bai; horrela, urteko programazio orokorra eta erabiltzaile guztien banakako garapen programak bermatuko dira.

6. Zentro horietako langilerik kaleratu al da? Baiezkoan, honakoak ezagutu nahi ditugu, zentro bakoitzeko: kaleratutako langileen kopurua eta profesional horien kalifikazioa. Zein izan dira langile horiek kaleratzeko arrazoiak? Justifikatu al dira? Gizarte Ongizate Departamentuaren adostasuna eta onspena izan al da? Horrek hitzarmenaren baldintzak haustea esan nahi ote du? Zein egoe-

ratan daude errehabilitazio psikosozialeko zentroak kudeatzeko itunak?

Erantzun aurretik, esan behar dut Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak errehabilitazio psikosozialeko zentroak kudeatzeko sinaturiko hitzarmen guztietan agertzen den baldintzetako bat dela plantillaren osaera eta langile kopurua, baina ez nork bete behar dituen lanpostu horiek. Beraz, eman ditzakegun datuak plantillari buruzkoak dira, baina ezin dugu esan kaleratzerik izan den ala ez, enpresak ez diolako hori komunikatu behar administrazioari.

Hori esan eta gero, Iruñean, Tuteran eta Lizarran errehabilitazioko 35 toki eta eguneko zentroko 30 toki egonik, hona hemen agiri teknikoaren plegetan eskatutako plantilla eta errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzean adjudikazioa hartu duen enpresak kontratatutako langileak:

Lanpostua	Hitzarmenaren arabera kopurua	Iruñean kontratatuak 2006ko otsailaren 1etik aurrera	Tuteran kontratatuak 2006ko otsailaren 20tik aurrera	Lizarran kontratatuak 2006ko otsailaren 20tik aurrera
Zuzendaritza	1	1	1	0,5
Psikologoa	0,5	0,5	0,5	0
Gizarte langilea	0,5	0,5	0,5	0,5
Administrari laguntzailea	1	0,5	0,4	0
Garbiketa	0,5	0,5	0,5	0,3
Lan-terapeuta	1	0,9	0,5	0,5
Zaintzailea	1	0,7	0	0
Lan-prestatzailea	1	0,7	0	0
Gizarte hezitzailea	3	2,1	0,8	0,6

Elizondoko errehabilitazio psikosozialeko zentroaren kasuan, errehabilitazioko 20 toki eta eguneko zentroko 15 toki egonik, hona hemen agiri teknikoaren plegetan eskatutako plantilla eta adjudikazioa hartu duen enpresak kontratatutako langileak:

Lanpostua	Hitzarmenaren arabera kopurua	Kontratatuak langileak
Zuzendaritza	1	1
Gizarte langilea	0,5	0,5
Administrari laguntzailea	0,5	0,5
Garbiketa	0,25	0,25
Lan-terapeuta	1	1
Zaintzailea	1	1
Gizarte hezitzailea	1	1

Begi bistakoa da plantilla guztiek ez dutela betetzen ehuneko ehunetan hitzarmenean eskatutakoa, baina hori da gaur egun zentroen okupazioa hitzarmenean aurreikusitakoa baino txikiagoa delako. Hori dela eta, plantilla horiek nahiko dira, egun, aipatu zentroetako erabiltzaileak behar bezala artatzeko.

Une honetan komeni da zenbait zehaztapen egitea: adimen-osasun arazoak dituzten pertsonak aipatzen direnean, oso arazo heterogeneoak dituzten pertsonaz ari gara, eta arazo horietan hainbat faktorek izan dezakete eragina, hala nola, biologikoak, kognitiboak, emozionalak eta sozialak.

Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiak, 2005eko urtarrilean, adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntzeko proposamena egin zuen, Nafarroako Estatistika Institutuak Nafarroako populazioari buruz emandako datuak kontuan izanik eta adimen-gaixotasunak diagnostikatzeko eskuliburuaren irizpideak aplikatuz. Horren arabera, populazioaren ehuneko batek adimeneko nahaste larria dauka; beraz, Nafarroan gutxi gora-

behera 6.000 pertsonak egin dezakete eskaera. Benetako datua da data horretan Gizarte Ongizatearen Departamentuko Elbarrien Balorazio, Diagnostiko eta Orientaziorako Zentroak bazituela erregistraturik adimen gaixotasunagatik emandako 1.067 minusbalotasun-agiri (eskizofreniagatik bakarrik).

Pertsona horiei laguntza espezializatua ematea aspaldi bete nahi izan den premia bat da; hala ere, praktikan, errehabilitazio psikosozialeko zentroetara joaten den erabiltzaileen kopurua espero zena baino txikiagoa da, honako faktoreengatik: gaixoak berak ez du onartzen gaixotasuna izatea, laguntza emateko dispositibo berriak direnez, oraindik ez dute lortu jendearen onespina, laguntza ematea gaixoaren borondatearen esku dago, eta abar.

Une honetan, bete-betean lanean hasteko beharko den denborari buruzko estimazio bat egiteko lanean ari gara. Horretarako, errehabilitazio psikosozialeko zentroak lanean hasi zirenetik honakoa aztertzen ari gara: adimen osasuneko zentroek baloratutako erabiltzaileen kopurua, hori-

en artean dagoen balizko erabiltzaileen kopurua, errehabilitazio psikosozialeko zentroetara joateari uko egin dion erabiltzaileen kopurua eta hori egiteko emandako arrazoiak.

Toki guztiak bete eta gero, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eskatuko du plantillak izatea sinaturiko hitzarmenetan ezarritakoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoei eta horri buruzko araudia betetzeari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du kirol-ikuskizun publikoei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoetan, udalerrri bat baino gehiagoren barna igarotzen direnetan, zehazki txirringularitza lasterketan, oinezko lasterketan eta zikloturismo martxetan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak behar den baimen administratiboa ematen du eta bere bitartekoekin kirol-ikuskizuna ikuskatzen eta kontrolatzen du legezkotasuna betetzen den eta normaltasunez egiten den ziurtatzeko. Hori horrela, 2004. eta 2005. urteetan, Barne Zuzendaritza Nagusiak baimendu ditu udalek antolatutako 9 txirringularitza lasterketa, 11 lasterketa eta 27 zikloturismo martxa.

Lizentzia duten lokaletan udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoetarako ez da alde zuzeneko baimen administratiboa behar, eta horrelakoe-tan, toki entitateei dagokie lokal horiek ikuskatzea

eta kontrolatzea; hala ere, udalek hala eskatuta edo udalek beharrezkoa den pertsona kualifikatua ez badute, Nafarroako Gobernuak bete ditzake lan horiek.

Azkenik, udalerrri bakar baten mugen barruko bide publikoan udalek antolatutako kirol-ikuskizun publikoetan, toki entitatearen ardura da legea betearaztea eta normaltasunez egiten den ziurtatzea; horretarako hartu behar dituzte beharrezkoak diren neurri guztiak parte-hartzaileen, publikoaren eta beste batzuen segurtasuna bermatzeko; hala ere, udalak ez baditu zainketa zerbitzua emateko baliabideak, laguntza eskatu ahal dio Nafarroako Gobernuari.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak ez ditu ezagutzen antolaketa edo baimena ematea udalen esku dauden kirol-ikuskizunen espedienteak. Horretaz gain, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du eskumenik espediente horien tramitazioa ikuskatzeko; izan ere, espediente horiek ebaztea toki entitateen eskumena da eta departamentu horrek erabateko errespetua dio udal autonomiari.

2003. urteaz geroztik, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak udalen aurkako 23 zehapen espediente ireki ditu, horien artean, Larragako udalaren aurkako bat, ustezko arau-hauste batengatik, zehazki kirol-ikuskizun bat antolatzean eskatutako segurtasun neurriak behar bezala ez hartzeagatik. Aipatu zehapen espediente hori instrukzio fasean dago, eta beraz, emanen zaion ebazpenaren zain. Besteei dagokienez, ondoko zehapen espedienteak isunarekin ebatzi dira:

– Castejón Udalak	150 euro
– Alloko Udalak	300 euro
– Aresoko Udalak	300 euro

– Buñuelgo Udala	301 euro
– Caparrosoko Udala	301 euro
– Funesko Udala	120 euro
– Murchanteko Udala	120 euro
– Noaingo Udala	300 euro
– Aberingo Udala	120 euro
– Beireko Udala	300 euro
– Azagrako Udala	300 euro
– Zangozako Udala	300 euro

– Atarrabiako Udala	120 euro
– Arguedaseko Udala	300,1 euro
– Cadreitako Udala	150 euro

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 9an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, erizaintzako lanbide karrerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak erizaintzako lanbide karrerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du erizaintzako lanbide karrerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun-lanbideen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak, bigarren xedapen iragankorrean (lanbidea garatzeko sistemaren ezarpena), honakoa esaten du:

Osasun administrazioek zehaztuko dituzte III. tituluaren aurreikusitako lanbidea garatzeko sistema ezartzeko epeak eta aldiak, irizpide orokorra izanik lege honek indarra hartu eta lau urteko epean 6. eta 7. artikuluetan ezarrita dauden osasun-lanbide guztietan lege hau ezartzeko prozedurak hasita izanen direla.

Zentzu horretan, 2006ko azaroa arte emandako epea ez da sistema behin betikoz ezartzeko, baizik eta hori lortzeko prozedurak hasteko.

Beste aldetik, lanbidea garatzeko sistema ezartzeak, printzipioz, ez du eraginik izanen langileen egituren dauden mailen arteko progresioarekin lotutako lan baldintzak ezartzean eta arautzean. Hori argi asko ondorioztatzen da bai aipatu legea babestu zuen eskumenetik (barne osasunaren arloko eskumena, eta ez funtzionario publikoen estatutu-araubidea. azken xedapenetako lehenaren arabera, zeinak, bidenabar, berariaz adierazten baitu errespetatuko duela Nafarroako foru araubidean ezarritakoa) bai laugarren xedapen gehigarrian dagoen aurreikuspenetik (lanbidea garatzeko sistemaren ordainsariak); xedapen gehigarri horretan ezarritakoaren arabera, lanbide garapenaren graduak onartzeak ekar litzakeen ordainsariei buruzko ondorioak, egituren eta zenbatekoan, sindikatuarekin negoziatu beharko dira.

Edonola ere, Nafarroari dagokionez, esan behar da egun irekita dagoela negoziazio prozesua, funtzionario eta estatutupeko langileen mahai orokorrean, lan baldintzei buruzko akordio bat sinatzeko, 2006. eta 2007. urteetarako. Prozesu horretan, Nafarroako Administrazioaren ordezkariak eskaintza egin du 2006. eta 2007. urteetan aztertzeko eta lantzeko lanbide eta administrazio karreraren proposamena, Foru Komunitateko administrazioaren nahiz haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan ari diren langile finko guztientzat aplikagarria izanen dena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu

andreak galdera egin du gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

233 gaixo Klinika Unibertsitariora eta San Juan de Dios Ospitalera bideratzeari dagokionez, une honetan ezinezkoa da horren kostua ezagutzea; izan ere, laguntza emateko prozesuekin zerikusia duten arrazoiak direla medio, laguntza horien fakturak ez zaizkio igorri Osasunbideari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 16an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Nafarroako futbol selekzioaren gastuei eta dirulaguntzei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Nafarroako futbol selekzioarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partida 2004ko abenduaren 29an izan zen, eta ez abenduaren 28an, galdegileak bitan esan duen bezala, partida ustez errugabeko santuen egunean zela aprobeztatuz behin eta berriro ironiaz mintzatzeko.

2005eko uztaillean, foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunari gai horri buruz emandako erantzunean esan genuen "Nafarroako selekzioaren kamisetak" kontusailerako 61.248 euro bideratu zirela. Inbertsio horren barne zegoen 2.474 kamiseta eta 523 haurrentzako kirol jantzi (kamiseta, prakak eta galtzerdiak) erostea.

"Nafarroako Futbol Federazioaren kirol ekipamenduak" kontzeptuaren azpian honakoa sartzen da: 35 ekipamendu osoak (poltsak, txandalak, anorakak, kapusaiak, kirol-jertseak, mahuka motzeko kamisetak, entrenatzeko kamisetak, prakak, galtzerdiak eta poloak), 38 kamisetak eta entrenatzeko 18 praka motzak; hori guztia jokalarientzat eta talde teknikoentzat. Atal honetako 15.000 eurotan sartzen dira Nafarroako Futbol Federazioaren kudeaketa-gastuak eta administrazio-langileen gastuak ere bai.

Galdegileak kontrakoa esaten badu ere, Nafarroako zergadunek ez zituzten ordaindu behar izan lehen aipatutako 2.474 kamisetak eta 523

kirol ekipamenduak, Nafarroako Kutxa Fundazioak erosi baitzituen.

Nafarroako futbol selekzioaren kamiseta bakoitzak 2.748 euroko kostua izan duela esatea hipotesi bitxia da, eta barregarri uzten du holako berria komunikabideen bitartez zabaldu duena; horretaz gain, hori esateak Nafarroako futbol selekzioaren partidak antolatzen ari direnen profesionaltasuna eta izen ona zikintzen ditu. Kontseilariaren ustez, Etxegarai jaunak jendaurrean barkamena eskatu beharko lieke.

Nafarroa-Maroko partida antolatzeko sinatutako hitzarmena –2005eko maiatzean parlamentuari aurkeztua– irakurtzean, argi ikusten da Nafarroako Gobernuak 165.000 euroko ekarpena egin zuela. Nafarroako Futbol Federazioak ez du inolako dirulaguntzarik jaso ikuskizun horrengatik.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eta Nafarroako kirol federazioek sinatutako lankidetzahitzarmenari esker, Nafarroako Futbol Federazioak honako dirulaguntzak jaso ditu funtzionamendu eta kudeaketarako eta ibilgetu materialeko ekipamenduetarako: 2003an, 53.391,80 euro; 2004an; 54.679,00 euro; eta, 2005ean, 70.178,45 euro. Halaber, Osasuna Fundazioak eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak Nafarroako oinarritzko futbola antolatzeko sinatu duten lankidetzahitzarmenari esker, Nafarroako Futbol Federazioak 37.799,80 euro jaso zituen 2004an eta 40.000,00 euro 2005ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak 2006ko dirulaguntzen deialdia oraindik sinatu ez duenez, ez ditugu ezagutzen urte horri dagozkion datuak.

Foru parlamentari Maiorga Ramírez jaunari emandako erantzunean jakitera eman genuenez, 2004an bezala, 2005ean ere Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxa Fundazioarekin lankidetzahitzarmena sinatu zuen Nafarroako Futbol Federazioak antolatutako beste partida bat finantzatzeko, zehazki, abenduaren 26an Nafarroako eta Txinako Herri-Errepublikako selekzioen artean jokatu behar zena. Aipatu hitzarmen horretan Nafarroako Gobernuak ordainduko duen kopurua gehienez 170.000 eurokoa izanen dela erabaki zen.

2005. urteari dagozkion gastu horiek ondoko atalotan daude banaturik:

Kontzeptua	Euroak
Txinako selekzioaren eskubideak	58.000,00
Txinako selekzioaren egonaldia	26.211,00
Txinako selekzioaren joan-etorrietarako autobusa	9.204,14
Taxi zerbitzua	1.690,00
Segurtasuna	8.990,00
Nafarroako selekzioaren jokalarientzako aseguruia	11.025,02
Txinan partida telebistaz ematea. Telebista seinalea/satelitea	13.600,00
Interpretea	900,00
NFFren administrazio gastuak	8.000,00
Nafarroako selekzioaren ekipamendua	10.830,69
C.A. Osasuna. Futbol zelaia. Smart Visión erabiltzea.	58.580,00
Oparitzeko banderatzkoak	800,00
Txinako Federazioari eskainitako bazkari eta afari ofizialak	1.257,25
Bazkideei mezuak bidaltzea. Pertsonalizatzea, tratamendu informatikoa, agiriak tolestu eta manipulatzeko	111,30
Posta igorpenak	191,60
Gestión Asesoría Deportiva ASDE	17.400,00
Publizitatea, sarrerak eta gonbitak	24.928,40

Galdegileak, seguru asko modu okerrean, salatu du neurritz kanpoko gastua izan zela kirol jantzi-erosketan. Halakorik izan ez denez, kontseilariak ez zuen inolako neurririk hartu behar hori zuzentzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua bete-zeko.

Iruñean, 2006ko martxoan

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuako eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Nafarroako futbol selekzioaren partidatik heldu diren gastuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Nafarroako futbol selekzioarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako eta Marokoko selekzioen arteko futbol partida zela-eta garatu zen publizitate kanpainan agertzen ziren entitateak dira, normala denez, partida horren sustatzaileak, hau da, Nafa-

roako Gobernuak, Nafarroako Kutxa eta Nafarroako Futbol Federazioa.

Galderaren egileak egiazki jakin nahi du jatorrizko publizitatea zabaldu zuten enpresak zein diren; hor doakio ondoko zerrenda, 2005eko uztailean Nafarroako Parlamentura igorritako informazioetik ateratakoa. Informazio hartan kasuan kasuko hedabideen plana igorri zen, kontzeptuen, enpresen eta zenbatekoen xehetasunekin: Europa FM, Editora Independiente de Medios de Navarra S.A., In & Out Comunicaciones y eventos, Diario de Navarra, Eureka!, Diario de Noticias, La Estafeta de Navarra, Vivir Pamplona, Boletín del C.A. Osasuna, Radio Pamplona (SER), Radio Navarra (COPE), Onda Cero, Cadena 40, Cadena 100, NET 21 Radio, Track FM, Ribera Navarra, La Voz de La Ribera, Plaza Nueva, Diario de Noticias Edición Ribera, Diario de Navarra Edición Ribera, Onda Cero Tudela, COPE Tudela, SER Tudela, TVE, Antena 3, Canal 6, Canal 4, eta Popular TV.

Abenduaren 29an Nafarroako eta Marokoko selekzioek jokatu zuten partida Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak sustatu zuten, 2005eko uztailean Nafarroako Parlamentuaren esku jarri zen lankidetzaren hitzarmen bati esker. Bi entitate horiek hitzartutako ekarpen ekonomikoak nahikoak zirenez ekitaldiaren aurrekontua estaltzeko, ez zen beharrezkotzat jo beste batzuen babesa bilatzea. Ekitaldiaren ezaugarriak kontuan hartuta eta ikusirik 2004 eta 2005. urtee-

tan erabilitako formula egokia dela, Nafarroako Gobernuak formula hori bera erabili nahi du etorkizunean ere.

Nafarroako Gobernuari ez dagokio sustatze-ekimenak baloratzea, eta horien artean sartzen da Nafarroako Kutxa Fundazioak gauzatutako ekimena, Nafarroako selekzioaren kamisetak banatzea alegia.

Berriro ere kontseilari honek kexa adierazi behar du; izan ere, foru parlamentari batzuek galderak baliatzen dituzte akusazio faltsuak egiteko, eta hori larria da. Ez da egia Nafarroako Kutxak Nafarroako selekzioaren partida zela-eta erositako kirol jantziekin batera metxeroak banatu zirenik. Hori dela eta, ez da beharrezkoa Osasun Departamentuak horri buruzko iritzia ematea, ezta Gobernuko eledunak izan ez zen "jokamolde oker" batengatik damua adieraztea ere. Edonola ere, galdera egilea da pentsatu beharko lukeena ea neurririk hartuko duen gezur hori zabaltzearen ondorioz nazioarteko partidaren antolatzaileen irudiari eginiko kaltea ordaintzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoan

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Lizarran, Tafallan, Altsasun eta Baztanen Foruzaingoaren herritarrentzako laguntza bulegoak pixkanaka irekitzen hasteari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo eta bigarren galderak. Zein fasetan daude lokalak egokitze lanetako proiektuak, bulegoak zabaldu ahal izateko? Noiz hasiko dira egokitze lan horiek udal horietako bakoitzean?

Lizarrako Foruzaingoaren herritarrentzako laguntza bulegoa erabat berrituta dago eta erabiltzeko prest.

Tafallako bulegoa eraikitzeke lanak bukatzeaz daude. Aurreikusten da obren harrera heldu den ekainean izanen dela.

Altsasuko herritarrentzako laguntza bulegoa kokatuko den lokalak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxiki zaizkio. Horien berri- tzeari dagokionez, obren proiektua gauzatzeko kontratazio-espedientea hasita dago.

Azkenik, Baztango herritarrentzako laguntza bulegoari dagokionez, Ondare Zerbitzua bulegoa kokatzeko lokal egokien bila ari da. Lokal egoki bat aurkitu ondoren, obren proiektua gauzatzeko kontratazio-espedientea hasiko da.

Hirugarren galdera. Zer diru daude aurrekontu- etan giza eta gauza baliabideetarako?

“Foruzaingoa” 051 aurrekontuko programak egoki biltzen ditu iragarritako herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeko beharrezkoak diren gastu aurreikuspenak; horiek ondokoetan bilduta daude: “langileen ordainsariak” izeneko I. kapitulu- aren kontusailen xehetasunean, “ondasun arruntak eta zerbitzu gastuak” izeneko II. kapituluaren xehe-

tasunean eta “inbertsio errealak” izeneko VI. kapi- tuluaren xehetasunean.

Zehazki, Foruzaingoaaren ekitaldi honetako gastuen aurrekontuko VI. kapituluaren “herritarren- tzako laguntza bulegoetako obrak” izeneko 051000 02100 6020 132100 kontusaila dago, 450.000 euroko zuzkidura duena; diru hori erabiliko da aurt- ten kontzeptu horrengatik lehenetsiko diren beha- rrak gauzatzeko.

Laugarren galdera. Zenbat pertsona atxikiko zaizkio zerbitzuari udal bakoitzean?

Foruzaingoa polizia-etxe bakoitzeko honako plantilla izateko asmoa du: inspektoreorde bat, sarjentu bat, hiru kabo eta 17 polizia. Dena den, hori aldatu ahalko da eragin eremu bakoitzean gertatzen diren ustekabekoen eta premia zehatzen arabera.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege- lamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku- luan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Suhiltzaileen Par- tzuergoko langileen lansariei buruz egindako gal- deraren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi- tara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizi- alean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla- mentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du

suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Eskatutakoa betetzeko, Nafarroako Su- itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Partzuergoko lehendakariak eta Nafarroako Administrazio Publi- koaren Institutuko Segurtasun Eskolak egindako txostenak erantsi ditut; horietan erantzuna ematen zaie galderan agertutako gaiei.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Errege- lamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila- ria: Javier Caballero Martínez

Hona hemen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak (PES 73/06) egindako galderari Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko lehendakariak emandako erantzuna:

• Lehengo galdera. Suhiltzaileen Partzuergoko langileetatik zenbat dira A mailakoak?

Suhiltzaileen Partzuergoko langileetatik sei A mailakoak dira: lau suhiltzaile-ofizial, horietatik bat Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko zuzendaria, prestatzaile fisiko bat eta zuzenbideko lizentziatu bat.

• Bigarren galdera. Zenbateko soldata kobratu du horietako bakoitzak 2005ean eta zein kontzepturengatik?

Suhiltzaile-ofizialen urteko soldata 40.630,98 eurokoa izan da, honela banaturik:

Mailako soldata	1.751,84 euro.
Lanpostuko osagarria	280,29 euro.
Bateraezintasuneko osagarria	613,14 euro.
Arrisku bereziko osagarria	175,18 euro.
Produktibitate osagarria	81,75 euro.

Zerbitzuko zuzendariaren urteko soldata 48.969,76 eurokoa izan da, honela banaturik:

Mailako soldata	1. 1.751,84 euro.
Zuzendaritza postuko osagarria	700,74 euro.
Dedikazio eskusiboko osagarria	963,51 euro.
Produktibitate osagarria	81,75 euro.

Gorputz hezkuntzako lizentziatuaren urteko soldata 33.600,28 eurokoa izan da, honela banaturik:

Hasierako soldata	1.751,84 euro.
Lanpostuko osagarria	35,04 euro.
Bateraezintasuneko osagarria	613,14 euro.

Zuzenbideko lizentziatuaren urteko soldata 33.600,28 eurokoa izan da, honela banaturik:

Hasierako soldata	1. 1.751,84 euro.
Lanpostuko osagarria	35,04 euro.
Bateraezintasuneko osagarria	613,14 euro.

• Hirugarren galdera. Horietako bakarren batek % 25eko gainsoldata gaintitu al du?, horixe baita 2004ko suhiltzaileekiko akordioan eta 276/2989 Foru Dekretuko 11. artikuluan ezarritako muga.

Horietako inork ez du % 25eko muga gaintitu.

• Laugarren galdera. Gaintitu badu, zenbatean eta zein kontzepturengatik?

Ez da kasu bakar batean ere gaintitu.

• Bosgarren galdera. Zenbat aparteko ordu ordaindu zaizkie suhiltzaileen kidegoko langileei?

2005ean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko langileei, guztira, 21.292,20 euro ordaindu zaizkie aparteko orduengatik.

• Seigarren galdera. Horietatik zenbat dira esku-hartze orduengatik eta zenbat egitura-orduengatik?

Esku-hartze orduak: 7.692,00 ordu.

Egitura-orduak: 13.600,20 ordu.

• Zazpigarren galdera. Zenbat guardia lokalizatu egin dira?

2005ean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoan, guztira, 15.952 ordu egin dira guardia lokalizatuetan.

Honako hauek dira 2005ean guardia lokalizatuak egin dituzten funtzionarioak:

- Suhiltzaile-ofizialak
- Suhiltzaile-ofizialordeak
- Suhiltzaile-etxeke buruak diren sarjentuak
- Suhiltzaile-etxeke arduradunak diren sarjentuak
- Ur-salbamendurako Taldeko langileak
- Logistikako VII. Unitateko burua
- Suhiltzaile-gidari bat

• 13. eta 14. galderak. Zein langilek hartu du parte oposizio edo lehiaketetan epaimahaikide gisa, edo zein langile egon dira hautaprobak kontrolatzen suhiltzaileak edo foruzainak hartzeko deialdietan? Zein ordainsari jaso dituzte horrengatik?

2005ean, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko 52 langilek hartu dute parte hautaprobak kontrolatzen (30 suhiltzaile, zerbitzu osagarrietako bi suhiltzaile, 11 kabo, 4 sarjentu, ingeniari tekniko bat, zerbitzuburu bat, unitateburu bat eta bi zuzendari); hori dela eta, guztira, 9.075 euro jaso dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 15ean

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Partzuergoko lehendakaria: Juan Ramón Rábade Iráizoz

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak (PES 73/06) egindako galderari dagokionez, honakoa adierazten dugu:

Bederatzigarren galdera. Zenbat eskola ordu eman dituzte suhiltzaileen partzuergoko langileek funtzionarioentzat edo enpresa publiko nahiz pribatuentzat Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin lankidetzan edo hark antolatuta?

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari atxikitako langileek, guztira, 1.995 prestakuntza ordu eman dituzte.

• 10. galdera. Zenbateko ordainsariak eman dira eskola horiengatik? Nominan ala beste kontzepturen batengatik ordaindu dira?

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari atxikitako langileei, nominan, 72.629,71 euro ordaindu dizkiete, langile horiek emandako prestakuntza orduengatik.

• 11. galdera. Zein funtzionarioek eman dituzte eskola ordu horiek?

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari atxikitako honako langileek hartu dute parte:

– 2 sarjentu.

– 14 kabo.

– 14 suhiltzaile.

• 12. galdera. Zein irizpide erabiltzen dira eskola ordu horiek zein funtzionarioek emanen dituzten erabakitzeke?

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolan, eskola orduak eman zituzten langile gehienak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko lehendakariak emandako apirilaren 20ko 43/2005 Ebazpenaren bidez hautatu ziren. Ebazpen horren bidez, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko langileei murrizturiko lehiaketa-deialdia egiten da hiri-erreskateko irakasleak izateko, eta Partzuergoko beste langile batzuei horren inguruko prestakuntza orduak emateko.

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolan irakasle izan diren partzuergoko beste hiru langile teknikari izateagatik eta eman beharreko gaien adituak izateagatik hautatu ziren.

Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuak antolatutako ikastaroetan, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak, prestakuntza unitatearen bidez, txostengileak proposatzen ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13ean

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: Ignacio Bandrés Urriza

Nafarroako Segurtasun Eskolako zuzendaria: Jesús Barcia Lareu

Galdera, suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Eskatutakoa betetzeko, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoko lehendakariak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Segurtasun Eskolak egindako txostenak erantsi ditut; horietan erantzuna ematen zaie galderan agertutako gaiei.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 17an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galderaren (PES 72/06) 2., 3. eta 4. atalei dagokienez, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoko lehendakariak hauxe azaldu behar du:

• 2. galdera: Zein da suhiltzaileen kidegoko zerbitzu osagarrietako lanpostu ezberdinen eguneko lanaldia, urteko lanaldia eta ordainsariak?

	EGUNEKO LANALDIA	URTEKO LANALDIA
IRUÑEKO PARKEA	24 ordu	1.457 ordu
BESTE PARKEAK	12 ordu	1.554 ordu
IRUÑEKO ORDAINSARIAK	SUHILTZAILEA	SUHILTZAILE KABOA
HASIERAKO SOLDATA	1.226,25 €	1.226,25 €
LANPOSTUKO OSAGARRIA	231,27 €	387,99 €
ARRISKU BEREZIKO OSAGARRIA	122,63 €	122,63 €
GUZTIRA	1.580,15€	1736,87 €
BESTE PARKEETAKO ORDAINSARIAK	SUHILTZAILEA	SUHILTZAILE KABOA
HASIERAKO SOLDATA	1.226,25 €	1.226,25 €
LANPOSTUKO OSAGARRIA	231,27 €	387,99 €
ARRISKU BEREZIKO OSAGARRIA	122,63 €	122,63 €
GUZTIRA	1.580,15€	1736,87 €

• 3. galdera: Kidegoaren barruan lanpostu bakoitzak dauzkan eginkizunak ezarri al dira, zehazki zerbitzu osagarrietako lanpostu ezberdinek dituztenak?

Egun, garatzen ari da azterlan bat lanpostu kopurua eta horietara nola sartu zehazteko, baita eginkizunak, ordutegia eta ordainsariak zehazteko ere.

Iruñeko parkeko (Aralar) antolamendua desberdina da parke horrek beste guztiei ematen die-lako laguntza.

Zerbitzu osagarrietako kabo bat biltegi nagusiko unitateko burua da.

Zerbitzu osagarrietako suhiltzaile bat aurrekoari laguntza emateko dago.

Zerbitzu osagarrietako kabo bat mantentze lanetarako unitateko burua da.

13 suhiltzailek, 24 orduko txandetan, parkeko deiak hartzen dituzte.

4. galdera: Zergatik ez da osatu antzeko suhiltzaile zerbitzuekiko lansarien parekatzea, gaur egun indarra duten akordioetan sinatu zen bezala?

Suhiltzaileen Partzuergoak, 2004an, beste suhiltzaile zerbitzu batzuekin lansariak eta lan baldintzak alderatzeko azterlan bat aurkeztu zuen. Azterlan horren ondorioa zen Nafarroako Suhiltzaileen Partzuergoa, lansariei eta lan baldintzei dagokionez, Espainiako bigarrena zela, Gipuzkoaren atzetik.

2004an, Suhiltzaileen Partzuergoak eta sindikatuetako ordezkariak gatazkari amaiera eman zioten akordioak sinatu zituzten. Akordio horiek uneoro betetzen ari dira.

Hori guztia jakinarazten dizut hasieran egindako galdera erantzuteko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 15ean.

Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren Partzuergoko lehendakaria: Juan Ramón Rábade Iráizoz

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera (PES 72/06) erantzuteko, Nafarroako Segurtasun Eskolari dagokionez, honakoa adierazten dugu:

• 1. galdera: Zenbat ikastaro eman zaie suhiltzaileen kidegoko langileei, zenbat iraun dute eta zenbateko diru kostua izan dute?

2005ean, Nafarroako Segurtasun Eskolak suhiltzaileei zuzendutako lau ikastaro eman ditu:

– “Suhiltzaileen hiri-erreskateko irakasleak” izeneko ikastaroa, 75 ordu iraun zituena. Guztira, 8.169,89 euroko kostua izan zuen.

– “Agintarientzako hiri-erreskatea” izeneko bi ikastaro, bakoitzak 20 ordu iraun zituen. Guztira, eta guztira, 5.282,82 euroko kostua izan zuten.

– “Plantillarentzako hiri-erreskatea” izeneko 17 ikastaro, bakoitzak 28 ordu iraun zituen. Guztira, 60.534,48 euroko kostua izan zuten.

– “komunikazioen sare korporatiboa 2006” izeneko 13 ikastaro, bakoitzak 4 ordu eta 50 minutu iraun zituen. Guztira, 2.693,34 euroko kostua izan zuten.

Hori guztia jakinarazten dizut hasieran egindako galdera erantzuteko.

Beriainen, 2006ko martxoaren 15ean

Nafarroako Segurtasun Eskolako zuzendaria: Jesús Barcia Lareu

Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko kontusailari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1.- Zergatik ez da baimendu kontusailaren gutzitiko gastua urtarrilaren 30eko 12/2006 Foru Agindu horretan?

Lehenik eta behin, esan behar dut Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagokaren araubideari jarraituz tramitatuko dela.

Halaber, 17.2 artikuluan ezarrita dago dirulaguntzak zuzenean emateko prozedura berezi bat, kasu jakin batzuetarako: Zehazki, artikuluko c) letran, honakoa ezarrita dago: “Salbuespenez, hartzaile bat hautaturik beste edozein interesduni dirulaguntza eskuratzeko aukera kentzen zaionean, dirulaguntzaren xedea dela eta.”

Agindu horiek betetzeko, 2006ko dirulaguntzak emateko deialdian, 1.467.983,58 euroko gastua baimendu da; dirulaguntza horiek pertsona ezgaituen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateei eman zaizkie ondoko programak dituzten proiektuak garatzeko: Erabiltzaileentzako zuzeneko laguntza, laguntza komunitarioa, familientzako laguntzak, lanaren bidezko jarduerak, dibulgazioa eta sentsibilizazioa, prestakuntza, aisialdia, kirol egokitua eta denbora librekoa, eta boluntarioak. Beraz, dirulaguntzak ematean publizitate eta norgehiagoka-printzipioak betetzen dira.

“Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko 923001-93530-4819-231300 kontusailaren gainerako dirua, hau da 1.923.843,20 euro, aipatu Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 17.2 artikulua aplikatzeko zaien proiektuak laguntzeko erabiliko da.

2.- Noiz baimenduko da gastuaren gainerakoa?

Arestiko erantzunetik ondorioztatzen denez, gainerako gastua Dirulaguntzei buruzko Foru Legeak dirulaguntzak zuzenean emateko eskatzen duenaren arabera izapidetuko da. Kasu horietarako, foru legeak honakoa ezartzen du: norgehiagoka-printzipioa sustatzea ezinezkoa bada eta dirulaguntza zuzenean ematea saihestezina bada, beharrezko baldintzak izanen dira Nafarroako Gobernuaren baimena izatea, une honetan izapidetzen ari dena, eta 11/2005 Foru Legearen 25.2 artikuluan ezarritakoa betetzea.

“Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak” izeneko 923001-93530-4819-231300 kontusailaren kargura, dirulaguntzak, xedea dela eta, zuzenean emateko proposamen-espeditenteak honakoak dira:

ENTITATEA	PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Residencia Javier	Pertsona ezgaituentzako egoitzetako laguntza.	711.294,00
Anfas	Laguntza goiztiarra	134.320,00
Anfas	Zangozan eta Barañainen tutoretzako pisuak	241.884,60
Adacen	Garuneko kaltea dutenentzako aldi baterako egonaldia	61.790,00
Anasaps	Esku-hartze sozio-komunitarioa	80.000,00
Elkarkide	Ezgaitu psikikoentzako lanerako prestatzeko tailerrak	790.479,82
Guztira		2.019.768,42

3.- Uste ote du Gizarte Ongizate Departamentuak elkarteek beren lana egoki egin dezaketela kontusailak zatiturik daudela?

Departamentuak uste du elkarteek beren lana egoki egin dezaketela; izan ere, kontusailak zatitzearen helburua da Nafarroako Gobernuaren gas-

tuen aurrekontua hobeki kudetzea eta Foru Komunitateko dirulaguntzak emateko legeria betetzea. Nafarroako Gobernuak elkarte horiek garatutako programak diruz laguntzeko ematen duen zenbatekoak baldintza ditzake elkarte horien lana. Zentzu horretan, argigarria da ondoko taula:

Urtea	Lanerako prestatzeko zentroak kontusaila	Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak kontusaila	Finkatutako kreditua, guztira	Urteko igoera, ehunekotan
2003	2.230.283	2.217.507	4.447.790	
2004	2.690.973	2.723.930	5.414.903	% 22,8
2005	2.771.703	3.238.497	6.010.200	% 18,9
2006	3.001.646	3.487.752	6.489.398	% 8,0

Aurreko taulan "Lanerako prestatzeko zentroak kontusaila" sartu dugu, 2005. urtera arte "Beste elkarte batzuentzako dirulaguntzak" kontusailaren barruan Tasubinsarekin egindako lankidetzahitzarmenaren finantzaketa zegoelako. Jakina denez, 2005. urtetik aurrera, kontusail hori zatitu da eta Tasubinsarekin egindako elkarkidetzahitzarmenaren zenbatekoa biltzeko kontusail berri bat sortu da.

Beraz, argi ikusten da kontusaila zatitu dela aurrekontuaren arrazoi teknikoengatik eta ez duela eraginik elkarteek egiten dituzten programen garapenean. Nafarroako Gobernuak ezgaitasunak dituzten pertsonentzako elkarteetan jarduerak eta programak laguntzeko ematen duen diru kopurua nabarmen igo da. Izan ere, hiru urtetan % 49,7ko gehikuntza metatua eman da.

Finean, datuak adierazgarriak dira eta zeuden jarduerak mantentzea baino askoz gehiago egin dela erakusten dute; batez ere, kontusailen zenbatekoak izan duen igoera KPIa bezalako agerkeriekin alderatzen badugu.

4. eta 5. galderak - Kontuan hartuta garrantzi handiko elkarte batek, urteetan zehar lan ardurasu asko egiaztatu duen batek, joan den ekitaldian

659.000 euroko dirulaguntza jaso zuela, aurreikusitako dirulaguntza hori handitzea, ikusita ez dela inolaz ere nahikoa? Departamentuaren ustez, beste elkarte batzuentzako dirulaguntzen lerroan esleituta dagoen diru kopuruak aukera ematen al dio CORMINI dauden beharrei gutxieneko arreta eskainiz lan egiteko?

Galdera horiei erantzuteko, lehenik eta behin esan behar dut, kontusailari, horrek lortu nahi dituen helburuak kontuan izanik, aurreikusten zaion zenbatekoari nahikoa deritzogula, eta beraz, ez gatzela bat zure irizpidearekin.

Lehenengo galderari emandako erantzunean azaldu denez, programak bi multzo handitan banatu dira: alde batetik, Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legeak ezarritako norgehiagokaren araubide orokorra aplikatzeko zaien programak; bestetik, Foru Lege horren 17.2 c) artikuluan ezarritakoa aplikatu behar zaien programak

2006. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan bi programa multzoetarako esleituta dagoen kreditu osoaren banaketa egin da kopuru horiek nahiko direla programen helburuak lortzeko kalkulatu.

Azkenik, esan behar dut ezin dela zehaztu elkarte bati aurreko ekitaldian emandako zenbatekoa igoko den ala ez; izan ere, hori, norgehiagoka eta objetibotasun printzipioei jarraikiz egiten da, ezin da bestela izan, eta otsailaren 3ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen dirulaguntzak emateko deialdia ebaztean jakinen da. Komeni da gogoraraztea, batetik, deialdia irekita dagoela baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten elkarte guztientzat, eta bestetik, alde aurretik ez dakigula elkarte horiek zenbat eta zer motatako programan diruz laguntzea eskatu behar duten. Horretaz gain, deialdiak berak baremo bat ezarri du eta horren arabera zehazten dira eman beharreko kopuruak.

Beraz, deialditik ondorioztatzen da helburua dela beraien artean lehian ibiltzen diren programak sustatzea, eta programa horiek diruz laguntzen direla beren interes sozialaren arabera, eta ez interes horiekin zerikusirik ez dituzten beharrak laguntzeagatik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak etorkinak gizarteratzeko eta etorkinei hezkuntza arloan laguntza emateko jasotako laguntza ekonomikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako Gobernutik immigranteak gizarteratzeko eta hezkuntza laguntzarako jasotako laguntza ekonomikoei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zein laguntza ekonomikoa jaso ditu Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako Gobernutik immigranteak gizarteratzeko eta hezkuntza laguntzarako 2000., 2001., 2002., 2003., 2004. eta 2005. urteetan? Laguntzaren kontzeptuari eta zenbatekoari buruzko informazioa nahi dugu.

2005ean, Lan eta Gizarte Gaiaren Ministerioak, Immigrazioarako eta Emigrazioarako Estatu idazkari-

tzaren bitartez, ezarri zituen immigrazioa integartzeko eta hartzeko babes-fondo bat eta immigranteen hezkuntza sendotzea. Fondo horren banaketa autonomia erkidegoen artean egin zen Lan eta Gizarte Gaiaren Ministerioak alde aurretik ezarritako irizpideen arabera. Banaketa horretan, Nafarroari 1.188.109,10 euro egokitu zitzaizkion harrera eta integrazio lanak egiteko baina ez hezkuntza sustatzeko. Nafarroako Gobernuak kopuru hori jaso zuen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak lankidetzaren hitzarmena sinatu ondoren.

2. Nola erabili ditu Nafarroako Gobernuak laguntza horiek?

Autonomia erkidego bakoitzak jaso behar zuen diruaren erabilera Lan eta Gizarte Gaiaren Ministerioak eta erkidego bakoitzean zegoen organoak –Nafarroan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua– sinatutako lankidetzaren hitzarmenak baldintzatzen zuen. Horren bidez bi aldeek ekintza plan bat onartu behar zuten, eta plan horretan laguntzak zertarako erabiliko ziren zehaztu behar zen. Plan horren oinarria Lan eta Gizarte Gaiaren Ministerioak alde aurretik ezarritako eskema bat zen.

Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak Nafarroan etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko ekintza plana diseinatu zuen. Plan horretan immigrazioa gizarteratzeko eta hartzeko garatu behar

ziren jarduketa guztiak xehetasunez agertzen ziren.

Sinatutako hitzarmenak eskatzen zuen, alde batetik, toki entitateek garatu behar zituzten neurriei diru horren kopuru bat ematea, eta bestetik, Nafarroak funts horren % 30 jartzea. Hau da, planak bildu behar zituen bai Nafarroako Gobernuak garatu beharreko jarduketak bai toki entitateek garatu beharrekoak.

Hortaz, Ministerioak emandako funtsa etorkinak gizarteratzeko neurriak garatzeko erabili da; neurri horietariko batzuk Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatu ditu eta besteak toki entitateek garatu eta kudeatu dituzte.

3. Nola egin da banaketa? Zein irizpide erabili dira estatuaren laguntza horiek banatzeko?

Ekintza plana Lan eta Gizarte Gaiien Ministerioak aldez aurretik ezarritako eskemaren arabera egituratu zen; eskema horrek bederatzi jardueraildo zituen eta planean jaso beharreko jarduketetan kontuan izateko zenbait gomendio eta baldintza aipatzen zituen. Plan horretan, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek bultzatu ohi zituzten jarduketak eta funtsaren kargura sor zitezkeenak ere sartu ziren.

2005eko ekainean, ministerioak Gizarte Ongizate Institutuari jakinarazi zion Nafarroa funtsaren banaketaren barruan zegoela; halaber, uztaila bukatu baino lehen ekintza plana onartu eta lankidetzahitzarmena sinatu nahi zuela adierazi zion.

Plan hori lantzeko oso denbora gutxi genuenez, eta hitzarmenaren klausula batean toki entitateek laguntzaren zati bat kudeatu behar zutela ezarri nahi zenez, oinarrizko gizarte zerbitzuei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari une horretan genuen informazio guztia eman genien. Horren asmoa zen haien eremuetan etorkinak gizarteratzeko garatzen ari ziren edo garatu behar zituzten jarduketei buruzko informazioa eskatzea, jarduketa horiek Lan eta Gizarte Gaiien Ministerioak eta Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak onetsi behar zuten planean jasotze aldera.

Horiek emandako informazioa Lan eta Gizarte Gaiien Ministerioaren teknikariek egiaztatu zuten, eta ministerioak aldez aurretik ezarritako irizpideekin bat zetozen aurkeztutako jarduketa guztiak sartu ziren planean.

Gauzak horrela, hona hemen plan horren oinarrizko banaketa ekonomikoa:

Lan eta Gizarte Gaietarako ekarpena 1.188.109,10 eurokoa izan zen; horietatik,

625.160,58 euro (% 52,6) planean sartzeko jarduketak aurkeztu zituzten toki entitateen artean banatu ziren, eta beste guztia, hau da, 562.948,42 euro (% 47,6) Nafarroako Gobernuak garatutako jarduketak finantzatzeko erabili zen.

Nafarroako Gobernuak, aldi bereko finantzaria den aldetik, 358.251,96 euroko ekarpena egin zion ekintza planari, hitzarmeneko klausuletan ezarritakoari jarraikiz. Kopuru hori Nafarroako Gobernuak garatutako jarduketak finantzatzeko erabili zen.

4. Zein entitatek edo erakundek hartu dituzte laguntzak? Zein dira diruz lagundutako proiektuak?

Laburbilduz, aurreko erantzunetan islatu denez, ekintza plana 8 ardatzetan egituratu zen, Lan eta Gizarte Gaiien Ministerioak aldez aurretik ezarritako eskemei jarraikiz:

Harrera	19 jarduketa
Gizarte Zerbitzuak	9 jarduketa
Enplegua	3 jarduketa
Etxebizitza	Jarduketa 1
Parte-hartzea	4 jarduketa
Tratu berdintasuna	Jarduketa 1
Generoa	Jarduketa 1
Sentsibilizazioa	5 jarduketa

Nafarroako Gobernuak garatutako jarduketak kudeatzeko ereduak deialdi publikoa edo lankidetzahitzarmena izan dira; hona hemen onuradun izan diren entitateak: ANAFE CCOO, UGT, SOS-Arrazakeria, Afrika Etxea, Gurutze Gorria eta Lizarako María Inmaculadaren mojak.

Ondokoak dira planaren barruan sartutako toki entitateak: Iruñea, Tuteran, Lizarra, Barañain, Burlata, Atarrabia, Azkoiengo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Cintruénigoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Artaxoako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Horiekin guztiekin lankidetzahitzarmen bat sinatu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 2006ko maiatzaren 29koa, egoitzaren garbiketarako lehiaketa publikorako deialdia egiten duena.

Kontratuaren xedea: Nafarroako Parlamentuaren egoitzako lokalen garbiketa (Iruñeko Navas de Tolosa kaleko 1. zenbakiko eraikina).

Lehiaketa irekia: Tramitazio arrunta.

Kontratu-hartzaileen sailkapena: Ikus orriak.

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua: 245.000 euro. (BEZa barne).

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Dokumentazioa eta argibideak non eskuratu: Nafarroako Parlamentua - Zerbitzu Orokorrak. Navas de Tolosa kalea 1, Iruña. Telefonoa: 948 209 209, fax zenbakia: 948 22 84 44. www.parlamento-navarra.es

Eskaintzen aurkezpena.

Eskaintzak aurkezteko epearen amaiera: iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita hogeita zaz-

pigarren eguneko 12:00etan; epearen azken eguna baliogabea bada (larunbata, jai eguna edo igandea), hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: klausula administratibo partikularren orrian adierazten dena.

Aurkezteko tokia: Nafarroako Parlamentua, Erregistro Orokorra, Navas de Tolosa kalea, 1, Iruña.

Proposamen teknikoak eta eskaintza ekonomikoak irekitzea: Ekitaldi publikoetan eginen dira, abuztuan. Eguna eta ordua iragarkien oholean eta Nafarroako Parlamentuaren web gunean iragarriko dira: www.parlamento-navarra.es

Iruñean, 2006ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--